

## BERGARAKO UDALA

### Udaleko *Itzultzaile* lanposturako lan poltsa osatzeko deialdia arautuko duten oinarriak

#### Lehena. Deialdiaren xedea.

Honako deialdi honen xedea da, oposizio irekiaren sistemaren bidez, Udaleko **Itzultzaile lanposturako lan poltsa** osatzea, Administrazio Berezia eskalako, Teknikarien azpieskalako eta Erdi Mailako Teknikarien klaseko eta A2 taldean sailkatua.

Lanpostua Udaleko Euskara Departamentuan sartuko da eta eginkizun eta arduraren nagusiak Bigarren Oinarrian zerrendatzen direnak dira.

Deialdiko lanpostuak Bergarako Udaleko langileriaren lan-harremanak arautzen dituen hitzarmenak jasotako Ordainsarien Taulako 14. maila du, eta derrigorrezko 4. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data beteta duelarik.

Postuaren dedikazioari dagokionez lan-jardun osoa du eta urteko lanaldia udalak urtean-urtean finkatzen duena izango da, betiere lanpostuaren izaera eta premia espezifikoak aintzat harturik. Egun edo egiteko batzuetarako goiz eta arratsaldeko jarduna ere izan dezake.

Hautaketa-prozesuari arau hauek aplikatuko zaizkio oinarri hauetan berariaz aurreikusten ez den guztian:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testuategina onartzen duena.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Toki-administrazioko funtzionarioak hautatzeko prozeduraren oinarriko arauak eta gutxienezko programak ezartzen dituena.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoa.
- 19/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena.
- 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura dauden langileak sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario

zibilen lanpostuak betetzeko eta lanbide-sustapenerako erregelamendu orokorra onartzen duena.

- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Era berean aplikatuko zaizkio horiek ordezkatzera etorri litezkeenak zein aplikagarri izan litezkeen bestelako arauak.

### **Bigarrena. Eginkizunak.**

Deialdiaren xedeko lanpostuaren funtzioak eta eginkizunak, besteak beste, ondoko hauek dira:

- Zuzenketa eta itzulpen lanak.
- Itzultzeko programaren mantenimendua (gaurkotu, txukundu...)
- Lehenago deskribatutako eginkizunez gainera, bere gaitasun eta ahalmen profesionalen arabera, ezarritako helburuak betetzeko egokitzen zaizkion bestelako eginkizunak bideratzea. Baita departamenduaren antolaketarako arduradunak egozten dizkionak ere.

### **Hirugarrena. Hautagaien baldintzak eta eskakizunak.**

Hautaketa prozesuan onartua izateko eta, hala badagokie, parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu kideren bateko herritarra izatea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuen arabera langileen zirkulazio askea aplikatu behar zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Era berean, espainiarren eta Europar Batasuneko gainerako estatu kideetako bateko nazionalen ezkontideak ere parte hartu ahal izango du, nazionalitatea edozein dela ere, eta, kasuan kasuko itunak hala aurreikusten duenean, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatu behar zaion estatuetako nazionalen ezkontideak, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude. Era berean, baldintza berberekin, haien ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek parte hartu ahal izango dute, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak badira eta haien kontura bizi badira.

b) Hamasei (16) urteak beteak izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.

c) Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen honako titulu akademikoa izatea: unibertsitate gradua, diplomatura edo baliokidea.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, dagokion baliozkotzea edo, hala badagokio, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria duela egiaztatu beharko da. Baldintza hori ez zaie aplikatuko Europar Batasuneko Zuzenbideko xedapenen babesean araututako lanbideen esparruan lanbide-kualifikazioaren aitorpena lortu duten izangaiei.

d) Lanpostuaren berezko egitekoak behar den bezala betetzeko gaitasun funtzionala izatea, zeina egiaztatuko baitute dagokien zerbitzu medikoek, praktiketako funtzionario izendatu aurretik. Hori dena, errege dekretu hau aplikatzearen kalterik gabe: azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena.

e) Diziplina-espediente batez edozein herri administrazio edo autonomia erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako gaitasun-gabetzea erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan-legepekoen kasuan, bereziak edo desgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko.

Beste estatu bateko nazionala izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina zehapenik edo baliokiderik ere, dagokion estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

f) Funtzionario publiko bihurtzea eragotziko dion bestelako ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez izatea, dagokien legezko xedapenek ezarritako baldintzetan.

g) Deialdian parte hartzeko Bergarako Udalak Zerga Ordenantzan aurreikusitako azterketa-  
eskubideengatiko tasa ordaindu izana.

Azterketa egiteko tasa (11,20 euro) ordaintzeari dagokionez, transferentzia bidez edo izena emateko aplikazioak emandako bidetara jarraituz egingo da, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Transferentzia egiterakoan derrigorrez adierazi beharko dira espediente-zenbakia eta deialdian parte hartuko duenaren NAN zenbakia; eta kontu korrante honetan egin beharko da:

KUTXABANK ES94 2095 5070 79 1061075569

h) 4. hizkuntz eskakizunari dagokion euskara-maila, derrigorrezkoa.

Honako baldintza/informazio hauek ofizioz egiaztatu eta/edo espedienteari gehitu ahalko zaizkio, interesdunak eskaera orrian horretarako baimena ematen duela adieraziko balu:

- Nortasun-datuak egiaztatzea
- Titulazio akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak).
- Hizkuntza-eskakizuna (Euskara).

Baimena eman ez dutenen kasuan edo ofizioz egiaztatu ezin izan direnetan, izangaiek 3 egun balioduneko epea izango dute, behin behineko onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda argitaratzen denetik, Bergarako udaleko web gunean “udal lan eskaintza” ataletik beharrezko dokumentuak aurkezteko.

### **Laugarrena. Eskabideak aurkeztea.**

Hauta-prozesuan parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredu hori Bergarako Udalaren web-gunean ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)) “Udal lan eskaintza” atalean bete beharko da.

Onartua izateko, eskabideak Bergarako Udaleko alkate presidenteari zuzenduko zaizkio, eta errefusatuak ez izateko hautagaiek adierazi beharko dute deialdiko 3. oinarrian eskatutako

baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzen hartuta.

Eskabideak, behar bezala beteta, Begarako Udaleko “Udal lan eskaintza” ataletik modu elektronikoa aurkeztuko dira, **2025eko urtarrilaren 7tik 2025eko urtarrilaren 10a bitartean.**

Egitezko errakuntzarik hautematen bada, edozein unetan zuzendu ahal izango da, ofizios edo interesatuak eskatuta, hurrengo pasartean zehaztutako kasuan izan ezik.

Eskabidea zuzendu ahalko da aurkezteko epea amaitzen ez den bitartean; behin epe hori bukatutakoan, zuzenketa ez da onartuko. Zuzenketa egiteko, izena emateko aplikazioaren bidez beste eskaera bat egin beharko da datu guztiak betez, eta izangai bakoitzak aurkeztutako azken eskaera baino ez da kontuan hartuko.

Ez da egitezko errakuntza kontsideratuko dagozkion tasak ordaindu ez izana eta eskaria baztertua izango da automatikoki.

Tasa ordaindu baina eskaria ez aurkezteak ere eskatzailea automatikoki baztertzea ekarriko du.

### **Bosgarrena. Hautagaien onarpena.**

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Korporazioko alkate-lehendakariak hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, zeinetan adieraziko baititu, kasua hala bada, baztertzearen kausak.

Zerrenda Begarako udaleko web orrian argitaratuko da ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)). Erreklamazioetarako 3 egun balioduneko epea egongo da akatsak zuzendu hala izateko.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikoa bihurtuko da baldin eta inork erreklamaziorik aurkezten ez badu. Halakorik izanez gero, ordea, beste ebazpen batean onartuko edo errefusatuko dira, eta haren bidez onetsiko da hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, eta udalaren iragarki-taulan eta Begarako Udaleko web-orrian argitaratuko da.

Ebazpen horren kontra, errekurtsio kontentzioso-administratiboa jarri ahalko da Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epearen barruan –onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda Begarako udaleko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita–. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurtsio aurkez dezan. Aldez aurretik eta nahi izanez gero, berraztertzeo errekurtsioa jarri ahalko da, hilabeteko epean.

### **Seigarrena. Epaimahai Kalifikatzailea**

**6.1. Osaera:** Deituriko hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondorengoak kontuan izanda eratuko da: urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoen Oinarritzko Estatutuaren Testu Bateratuak 60. artikuluan ezarritakoa, eta ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. artikuluan ezarritakoa.

Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta Alkate-Lehendakariak erabakiko dituen kideek osatuko dute, eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango da, eta ezinezko balitz arrazoia espedientean jasota lagako da.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako ordezkari batek prozesu osoan eta beste batek euskararen probarako hartuko dute parte epaimahaian.

Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatutakoan.

Udlean presentzia duten alderdi politikoen ordezkariak eta langileen ordezkariak izendatutako batek parte har dezakete begirale moduan.

6.2. Espezialitatea: Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiak izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

6.3. Abstentzia eta errefusatea. Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiak mahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

6.4. Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.5. Eraketa eta lan-egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezko gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze-prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

6.6. Jarduketa-prozedura:

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto-berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiak hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik; idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere lanpostua beteko dela ziurtatzeko xedez, hautatutako izangaiak behin betiko kontratua sinatu baino lehenago uko egiten badio, proposaturiko izangaiaren ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari.

d) Izangai batek ere gaudituko ez balitu baztertzailak diren proba guztiak, lanpostua bete gabe geratuko da.

Lehiaketa-oposizioa epaituko duen Epaimahaia kide titularrez eta ordezkoez osaturik egongo da, eta horien izendapena argitara emango da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan.

Epaimahaiburuaren edo bere ordezkoren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, ordezkapen horretarako izendatu den bokalak ordezkatu du; eta hura ere bertaratu ez balitz, Epaimahai Kalifikatzaileko kideen artean adin handiena duenak.

Idazkariaren eta haren ordezkoren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, Epaimahai Kalifikatzaileko gehiengoaren erabakiz hautaturiko beste edozein kidek hartuko du haren lekua.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, betiere prozeduraren legezotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izanez. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebartziko ditu eta lehiaketa-oposizio honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarriz.

Hautaketa-prozesuko edozein unetan, baldin eta Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagaietakoren batek ez duela betetzen deialdi honek eskatzen dituen baldintzetakoren bat, interesatuari entzun eta gero, prozesutik kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak eskabidean adierazitako okerrak edo gezurrak jakinaraziz.

### **Zazpigarrena.Hautaketa prozesua.**

Hautaketa prozesuko iragarkiak argitaratuko dira udaleko iragarki-taulan eta udaleko web orrian ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)).

Honako ariketa hauek egingo dira:

— **Ariketa praktikoa:** Derrigorrezkoa eta baztertzailea hautagai guztientzat.

Itzulpen lan bat edo batzuk egin beharko du/ditu hautagaiak.

Ariketari honi berrogeita hamar (50) puntu emango zaizkio gehienez, eta prozesuan aurrera jarraitzeko 25 puntu atera beharko dira.

### **Ariketa hau 2025eko urtarrilaren 17an egingo da.**

Ordua eta tokia udal webgunean argitaratutako ohar bidez jakinaraziko da beranduen ere urtarrilaren 15ean, proba goizean edo arratsaldean izan daitekeelarik.

### **Zortzigarrena. Jardunbidea.**

1.-. Epaimahai Kalifikatzaileak beharrezko neurriak hartuko ditu ariketen edukiaren konfidentzialtasuna berma dadin, bai halaber ariketa horiek hautagaien identitatea ez ezagutzeko moduan zuzenduak izan daitezen

2.- Baldin eta hautagairen bat Epaimahai Kalifikatzailearen deialdira agertzen ez bada hark adierazitako lekuan, egunean eta orduan, ezinbesteko arrazoiengatik izan arren ere, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da erabat.

Haurdunaldia eta edoskitzea. Haurdunaldian edo edoskitze-aldian dauden emakumeek eskatu ahal izango dituzte egokitzapen materialak; horretarako, aurretiazko jakinarazpena egin beharko diote Langileria eta Antolaketa Arloari, gutxienez proba egin baino bost egun baliodun lehenago. Emakumezko hautagairen batek, behar bezala egiaztatutako haurdunaldiko arriskua edo erditzea dela eta, ezin badu hautaketa-prozesua burutu edo hautaketa-prozesuko ariketaren bat egin, haren egoera baldintzapean geratuko da, alegia, prozesua amaitu beharko

du eta geroraturako faseak gainditu beharko ditu; baina fase horiek ezingo zaizkio gehiegi atzeratu, gainerako hautagaiek prozesua zentzuzko epean ebatz dadin daukaten eskubidea ez urratzeko. Hori epaimahaiak baloratu beharko du, eta, betiere, hautaketa-prozesua gainditu duten hautagaien zerrenda argitaratu aurretik egin beharko dira geroraturako probak.

Kalifikazio-epaimahaiak egokitu egingo ditu probak egiteko denbora eta/edo bitartekoak desgaitasun egiaztatua duten pertsonentzat, haiek aldeztu aurretik eskatuta eta beti ere eskabidean adierazi izan badu, aukera-berdintasuna bermatuz eta eska daitezkeen edukiak edo gaitasun-maila indargabetu gabe.

3.- Kanporatzekoak diren ariketetako bakoitza bukatu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udalaren iragarpenen taulan eta udalaren web-gunean ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)) argitaratuko ditu ariketa bakoitzaren emaitzak.

Probaren emaitzak argitaratu eta gero, 3 egun balioduneko epea izango da ariketa berraztertzeko edo/eta erreklamazioak aurkezteko. Epaimahaiburuari bidali behar zaizkio erreklamazioak, idatziz, Bergarako Udaleko Erregistro Elektronikoko Orokorrean aurkeztuta.

Probak egiteko egunean errekurtsoren bat ebatzteko bada, interesdunak kautelaz egin ahal izango ditu, baina ez dute baliorik izango errekurtsua ezesten bada.

Hautagaien jokabide irregularrak. Epaimahaiak hautaketa-prozesutik baztertzeko ahalmena izango du edozein motatako iruzurrak egiten dituen pertsona oro, edozein proba normal egitea eragozten badu edo berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak urratzen baditu. Epaimahaiburuak berehala jakinaraziko dizkio jarduketara horiek Langileria eta Antolaketa Arloari, eta bilkurako aktan jasoko ditu. Era berean, hautaketa-prozesua osatzen duen edozein proba egiten den bitartean, ez da onartuko arestian aipaturako printzipioak urratzeko erabil daitezkeen gailu edo bitarteko teknologikoak edukitzea edo erabiltzea; jokabide horrek berehalako bazterketa eragingo du.

### **Bederatzigarrena. Epaimahai kalifikatzailearen proposamena.**

Hautaketa prozesuan (Ariketa praktikoan) lortutako puntuak zehaztuko du hautagaien lehentasunezko hurrenkera.

Berdinketa egongo balitz, berdinduta dauden hautagaiei errekerimendua egingo zaie hiru egun balioduneko epean itzultzaile lanarekin lotutako ikastaroak aurkezteko. Aurkeztutako ikastaroek edo formazio ekintzek administrazio publikoek, elkargo profesionalek edo unibertsitateek emandakoak edo antolatutakoak izan beharko dute. Formazio ekintzen iraupena orduetan jaso beharko dute baloratuak izateko. Formazio ekintzen izenarekin itzulpen lanarekiko lotura argi gelditzen ez bada, Epaimahai kalifikatzaileak formazio-ekintzen gaitetia edo edukia egiaztatzeko eskatu ahal izango dio dagokion hautagaiari. Era berean, kreditutan adierazitako prestakuntza-ekintzen kasuan, kredituaren balioa orduetan honako hau da: kreditu bat 25 orduren baliokidea da.

Berdinketa kasuetan eta horien arteko lehentasuna ebatzi aldera itzultzaile lanarekin lotutako ikastaroen/formazio ekintzen guztizko ordu kopurua hartuko da kontuan.

Ikastaroek berdinduta dauden izangaien arteko lehentasuna erabakitzeke baino ez dute balioko, ariketa praktikoak emandako hurrenkera errespetatuko baita.

Hauek kontutan izanik, Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udalaren iragarpenen taulan eta Udalaren web-gunean ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)) emango ditu argitara hautaketa prozesua gainditu duten hautagaien izenak, lortu dituzten puntuen arabera gehienetik gutxienera ordenatuak, eta hurrenkera horretan lan poltsa osatzeko proposamena egingo du.

Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udaleko alkate-presidenteari zuzenduko dio akta, lan poltsa osatzen duen erabakia hartu dezan.

### **Hamargarrena. Intzidentziak.**

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta oposizio-lehiaketaren ordena eta buruzpide onerako behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez diren gorabehera guztietan.

### **Hamaikagarrena. Lan-poltsa**

Begarako udalean itzultzaile lanpostua aldi baterako betetzeko egon daitezkeen kontratazio-premiei erantzuteko osatuko da lan poltsa hau.

Lan-poltsa hau indarrean sartuko da ebazpenarekin batera.

Lan-poltsak, indarrean jartzen denetik kontaktzen hasita, urtebeteko balioa izango du, baina urtez urte eta gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango da, betiere Antolaketa Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak kontrakorik erabakiko ez balu.

Lan-poltsaren funtzionamendurako, udalak 2006ko apirilaren 4an Alkatearen Dekretuz onartua duen lan-poltsen erabilerarako barne araudiari jarraituko zaio edo hori ordezkatzeko onartzen den araudiari.

### **Hamabigarrena. Lan-poltsaren lagapena**

Lan poltsa hau ez da beste Administrazioei utziko.

### **Hamahirugarrena. Datu pertsonalen babesa**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Araudiak, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (Datuk Babesteko Erregelamendu Orokorra), 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta datuen babesari buruz indarrean dagoen gainontzeko araudiak ezarritakoa betez, izangaien izaera pertsonaleko datuak tratamendu-jarduera baten baitan kokatzen dira. Tratamendu horren helburua da langileak hautatzeko prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egitea, baita hautaketa prozesutik sortuko den lan-poltsa kudeatzea ere.

Begarako Udala, datu tratamenduaren arduradun gisa, datu pertsonalak tratatzeko legimitatuta dago interes publikoaren izenean egindako misio bat betetzeagatik tratatzen direlako datuak, lege betebeharraren baitan tratatzen direlako, eta baita, datuak beharrezkoak direlako interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko tratamendua beharrezkoa delako. Datu lagapen horren helburu bakar eta eskusiboa izango da administrazio publiko horiek enplegu eskaintzak egin ahal izatea, legez aurreikusi bezala. Izangaiaren onarpena berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

Datuak eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, tratamenduaren aurka egin zein horien mugatzea eskatzeko eskubidea egikaritu ahal izango da tratamenduaren arduradunaren aurrean, ondorengo helbidera zuzenduta: San Martin Agirre plaza, 1, 20570, Bergara (Begarako Udala).

Halaber, eskubideak errespetatu ez badira edo eskaerari erantzun zuzena eman ez bazaio, hautagaiak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan



(<https://www.avpd.euskadi.eus>). Tratamenduari buruzko informazio osagarria eskuragarri dago Begarako Udalaren webguneko Pribatutasun Politika atalean eta Datuen Tratamendu Jardueren Erregistroan ([www.bergara.eus/RAT](http://www.bergara.eus/RAT)). Tratamenduaren kodea honakoa da: 0602.

### **Hamalaugarrena. Inpugnazioak.**

Honako deialdi hau, beronen oinarriak eta honetatik nahiz Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetatik etor daitezkeen egintza administratibo guztiak inpugnatu ahal izango dira, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako epeetan eta forman.

### **Hamabotgarrena. Dokumentazioa Itzultzea**

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatuko direnek eta lan-poltsarako izendatuko direnek izan ezik.

Hautaketa-prozesua bukatu eta hiru (3) hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du udalak.

## AYUNTAMIENTO DE BERGARA

### Bases reguladoras de la convocatoria para la constitución de una bolsa de trabajo del puesto de Traductor/a Municipal

#### Primera. Objeto de la convocatoria.

Constituye objeto de la presente convocatoria la constitución de una **bolsa de trabajo del puesto de Traductor/a** municipal mediante sistema de oposición libre, encuadrada en la escala de Administración Especial, subescala de Técnicos, clase de Técnicos Medios y clasificada en el grupo A2.

El puesto de trabajo se integrará en el Departamento Municipal de Euskera, con las funciones y responsabilidades principales que se relacionan en la Base Segunda.

Al puesto de la presente convocatoria le corresponde el nivel 14 de la Tabla Retributiva que recoge el convenio regulador de las relaciones laborales del personal del Ayuntamiento de Bergara, así como el nivel lingüístico 4 preceptivo, con fecha de preceptividad cumplida.

El régimen de dedicación del puesto es de jornada completa, con una jornada anual que será establecida anualmente por el ayuntamiento, considerando la naturaleza del puesto y sus necesidades específicas. En ciertas fechas y para algunas funciones puede tener jornada de mañana y tarde.

Para todo aquello no previsto expresamente en las presentes bases, serán de aplicación en el proceso selectivo las siguientes normas:

- Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.
- Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local.
- Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.
- Real Decreto 896/1991, de 7 de junio, por el que se establecen las reglas básicas y los programas mínimos a que debe ajustarse el procedimiento de selección de los funcionarios de Administración Local.
- Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.
- Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera.
- DECRETO 19/2024, de 22 de febrero, de Normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco.
- Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.
- Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo de 2007, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres.

- Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.
- Real Decreto 364/1995, de 10 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento General de Ingreso del Personal al servicio de la Administración General del Estado y de Provisión de Puestos de Trabajo y Promoción Profesional de los Funcionarios Civiles de la Administración General del Estado.
- Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Asimismo, le serán de aplicación las normas que vengan a sustituirlas, así como cualesquiera otras que pudieran serles de aplicación.

### **Segunda. Funciones.**

Las funciones del puesto de trabajo objeto de esta convocatoria serán, entre otras, las siguientes:

- Zuzenketa eta itzulpen lanak.
- Itzultzeko programaren mantenimendua (gaurkotu, txukundu...)
